

LA IDEA DE HISTORIA EN ARTURO CAMPION

Emilio Majuelo


Eusko Ikaskuntza, 295 or.

Donostia, 2011

http://www.euskomedia.org/PDFAnIt/mono/campion/book_campion.pdf

[doan deskargatzeko]

Liburu hau agertzea albiste garrantzitsua da Euskal Herriaren kultur mundu txikian. Izan ere, aspaldi genekien Emilio Majuelo Campioni buruz ari zela lanean eta irrikan geunden haren lanaren emaitza ikusteko. Tamalez, Eusko Ikaskuntzak ikerketa egitea sari baten bitartez sustatu ondoren, ale gutxi batzuk baino ez ditu paperean jaulki, sarean doan jaisteko moduan jarri badu ere. Sentsazio gazi-gozoa uzten duen erabakia; izan ere, neuk ez daukat dudarik ikerketa honek zerbait hobea merezi zuela, ez bakarrik Majueloren lanaren kalitate dudagabeagatik (gero jardungo dugu horretaz) baizik eta, lehenengo eta behin, Arturo Campion Eusko Ikaskuntzako fundatzaile nagusietako bat izan zelako eta haren oho-rezko buru hasierako urteetan. Eta hau guztia ez kasualitatez, baizik eta Euskal Herriaren Pizkundean protagonismo berezi bat izan zuelako, Azkuerekin, Sabino Aranarekin eta Broussainekin batera garai horretako figura nagusietako bat izan baitzen. Baina krisiak jotako zorigaiztoko garai honetan Eusko Ikaskuntzak nahiago izan du minimo-minimoak bete, anbizio apur bat erakutsi baino. Urrunago joan gabe, liburua PDF minimalista bat argitaratu dute maketazioari dagokionez ere. Duina, zuzena, baina ez besterik. Deitoragarria zinez.



1. irudia. *La idea de historia en Arturo Campión* argitalpenaren azala.

Bada bigarren kontu bat ere gaiari bete-betean heldu aurretik argitu beharrekoa: gure protagonistaren izenaren grafia: Campión ala Kanpion? Jakina denez, berak nagusiki «Campión» erabili bazuen ere, haren euskarazko testuetan eta gutunetan sarritan «Kanpion» ikusten dugu eta, beraz, ez dago eragozpenik geuk ere euskarazko testuetan grafia hori paratzeko; horrela erabili izan da, gainera, urte askoan eta gaur egun ere oso sarritan euskal grafia da euskal testuetan ikusten dena. Baina azken urteotan Euskaltzaindiak erabili duen irizpide nagusiaren argitan nahia-go dugu euskarazko testuetan ere «Campion» idatzi (tiletik gabe); izan ere, gure akademiaren irizpide onomastikoak oraingoz, eta tamalez, nahikoa argiak eta sendoak ez badira ere, puntu honetan ez dago dudarik: erdal deituren grafia ez da euskaratu behar

kasu bakan eta berezi batzuetan ez bada (izen klasikoak eta antzekoak), eta Campión, duda gabe, erdal deitura da. Ni neu ez naiz ausartzen inori kargu hartzera «Kanpion» erabiltzeagatik, baina garbi dago gaur egun euskara batuan idatzi nahi badugu, «Campion» (tiletik gabe) dela erabili beharreko forma.

Baina esan beharrekoak esanda, jo dezagun harira. Liburua bi partetan banatzen da, «Con Campión» (7.-135. or.) eta «De Campión» (135.-271. or.), eta kontrazaleko ohar labur batean irakur daitekeenaren arabera, lehen partean haren bizitzari buruzko zertzelada batzuk eskainiko dira, bigarrenean bere pentsamenduaren iturriak arakatzeko. Nire uste apalean banaketa hori formalki baino ez da benetako, errealki parte bietan antzeko arazoei buruz diharduelarik. Egia da lehen zatian dimentsio kronologikoa, hots, Campionen bizitza, dela azalbidearen hari nagusia; bigarrenean, berriz, gai-kako hari bati segitzen zaio, baina sakoneko mezua bietan nahikoa antzekoa da eta nire irudiko hiru ardatz argien artean antolatzen da: lehena, zer dugu Campion, literato bat ala historialari bat? Bigarrena, abertzalea izan zen ala erregionalista paktista bat, aldiro-aldiro sukar abertzale pasakor batek hartua? Eta, hirugarrena, bizi-tzan zehar aldaketa handiak nozitu zituen ala ildo nagusi baten arabera jokatu zuen beti? Hiru ardatz horien azterketak, neuk argitasunaren alde orain eta hemen dilema gisa formulatuak, osatzen du liburuaren muina. Gaietiko guztia, oparo eta emaro eskaintzen zaizkigun mila eta bat albiste, argudio eta eleka, alde edo moldez hiru ardatz horietakoren baten arabera antolatzen dira beti, edo hala uste dut nik behintzat.

Hiru dilema horietatik lehena da, dudarik gabe, Majueloren ardura nagusia biltzen duena, haren tesi nagusiaren muina. Alegia, Arturo Campion topikoa, arrunki aurkeztu izan zaiguna, *literato erromantiko* bat da, funtsean *El genio de Nabarra* (1884-1888) edo *El bardo de Itzaltzu* (1917) lanen egilea. Eta, jakina denez, azken hamarkadetan, aurreko mende hasieran ez bezala, gure artean inori *erromantiko* deitzea benetako sanbenito bat zintzilikatzea izan ohi da, onenean txoro irudimentsu eta inofentsibo baten gisa aurkeztea; txarrenean, sarritan ikusi dugunez, faxista bat izango da, edo faxismotik oso hurbil dagoen bat, alegia, nazionalista bat, nazionalismoa faxismotik oso hurbil dagoen zerbait izaten baita ikuspuntu horren arabera. Ez da orain lekua eta momentua Erromantizismoaren karakterizazio horren arrazoietan sakontzeko, baina azpimarra dezagun iturria ez dagoela Espainian, II. Mundu Gerra osteko Alemanian baizik, eta ikusmira hori oso arrunta dela intelektual europar *progresisten* artean (interesatuak informazio ugari aurkituko du Rüdiger Safranskiren liburu honean: *Romanticismo: una odisea del espíritu alemán*, 2009 ; jatorrizkoa: *Romantik. Eine deutsche Affäre*, 2007). Majuelo ikuspegi topiko horren kontra errebelatuko da guztiz, hori da liburu honen gako nagusia, eta ondorioz Campion benetako historialari baten gisa aurkeztuko du, bere garaiko historialarien usadio, bertute edota akatsen jabea, eta ez bakarrik Espainiako testuinguruan, Europakoan baizik. Hitz batean esanda, Majuelok errebindikatu nahi du Campion bere garaiko intelektual europar bat izan zela, bokazio publiko nabarmena izan zuena (kazetari, politikari, nobelista) baina, funtsean, historialari bat izan zena, metodo kritikoa bere garaiko historialari

onenek aplikatzen zuten bezala aplikatzen saiatu zena, emaitza aipagarriak lortuz.

Funtsezko tesi horrek ñabardura asko beharko lituzke. Lehenengo eta behin, halaberrez inplikatzeko dituzten beste bi dilema nagusiak: Campion benetako abertzalea izan ote zen eta bere bizitzan ildo nagusi bati jarraitu ote zion. Beherago mintzatuko gara horietaz, orain sakondu dezagun gure pertsonaiaren historialari izaeran. Majueloren arabera, Campionek oso gazetetik kontaktu etengabea izan zuen Europako intelektual nabarmen askoren obrarekin: Frantzia zen beti haren iturri nagusia, frantsesa gazte-gaztetatik menperatzen baitzuen, baina benetan esanguratsua ez da frantsesa *jakitea* (oso arrunta garai horretan), liburu frantsesak etengabe irakurtzeko ohitura izatea baizik, lehenengo eta behin autore frantsesenak, baina baita aleman, ingeles edo italiarrenak ere; halaber, Frantziara sarri bidaiatzea eta bertako kultur giroarekin eguneroko harremana mantentzea. Baina Frantzia erreferentzia nagusia bada ere, ez da bakarrik, Campionek alemana ere ikasi baitzuen (irakurle gisa bakarrik) eta Alemaniara ere bidaiatu. Frantzia eta Alemania, horiek dira haren iturri intelektual handiak, frantses hizkuntzaren bidez normalki, baina ez bakarrik. Horrek esan nahi du, adibidez, ondo ezagutzen zituela orduko historialari handi zenbait eta haien teoriak eta metodoak aplikatzen saiatu zela, adibidez, Jules Michelet (1798-1874), Edgar Quinet (1803-1873) edo Odysse Barot (1830-1907) hiru eredu nabarmen izango dira harentzat (hirugarrena guretzat guztiz ezezaguna bada ere); hortaz gain, Campionen metodoak, ideiak eta lanak arazorik gabe konpara daitezke haren garaiko historialari espainiar onenekin: Rafael Altamira

(1866-1951) edo Eduardo Ibarra (1866-1944). Eta, betiere historialaritzari gagozkiolarik, alde handia ateratzen diete Antonio Cánovas del Castillo (1828-1897) bezalako historialari-politikariei: «Las diferencias con Cánovas historiador eran notables en cuanto a dedicación a la disciplina, pues Campión en relación a Cánovas realizó un ímprobo trabajo de archivo» (217. or.). Majueloren ondorioa eztabaidaezina da: errakuntza handia da pentsatzea Campion politikari profesional bat izan zela, historialari lanetan *amateur* baten gisan jardun zena, hala nola Cánovas Espainian; aitzitik, benetako profesionala izaten saiatu zen sistematikoki, Frantzian zeuden eredu onenak aztertuz, haien irakatsiak bereganatuz eta, bereziki, orduak eta orduak sartuz artiboak arakatzen eta mota orotako bibliografia zientifikoa irakurtzen.

Profesionala esan dugu baina, hona beste ohar garrantzitsu bat unibertsitate-erik gabeko herri batean. Alegia, Campion intelektual independente bat izan zen beti bi arazo-erengatik: bate-tik, jaiotzez eta ezkontzaz aski diru izan zuelako beti errentista burges baten bizimodu lasaia eramateko, soldatapeko lanik egin behar izan gabe eta, bestetik, Euskal Herrian unibertsitate-erik egon ez zelako. Ondorioz, zinezko profesional bat izateko ez zuen izan benetako plataformarik eta bere ahale-gina mundu burges bateko elkarte jakintsuetara bideratu behar izan zuen beti: Asociación Euskara de Navarra, Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra, Eusko Ikaskuntza edo Euskaltzaindia. Orobat, bere lanak argitaratzeko elkarte horien albistari eta buletinera jo beharko du, edo argitalpen komertzial hutsetara, edo zuzen-zuzenean prentsa-artikuluak idaztera. Eta, jakina, entzuleak

izateko eta iritzi publikoari zuzentzeko mota orotako mitin, bilkura, bazkari eta antzekoetan hitzaldiak ematera, unibertsitate bateko geletan hitz egin beharrean. Jakina denez, Max Weberren garaietatik ohituta gaude *politikari* eta *zientzialariaren* artean banaketa garbi bat egitera: lehenari plaza publikoa dagokio, bigarrenari unibertsitatearen santutegia, baina ahaztu egiten dira, sarri, bi ohar garrantzitsu: batetik, mundu anglogermanikoan ez bezala, mundu *latinoan* (Frantzia eta Espainian, eta hori da Euskal Herriaren testuingurua) *intelektualek* aldi berean bi eremuetan aritzeko joera erakutsi dutela, eta, bestetik, Weberren banaketak ez duela zentzurik erabaki politiko hutsez unibertsitateaz gabetutako herrialde batean, kasu, Euskal Herrian. Hain zuzen ere Campionek lan itzelak dedikatuko dizkio unibertsitate bat lortzeko errebindikazioari, hori eskuratzea delarik, noski, Weberren banaketa zentzuzkoa bihurtzeko aurrebaldintza. Errakuntza bat da, beraz, Campion historialari *amateur* gisa sailkatzea unibertsitatean eskolarik eman ez zuelako, aukera hori ezinezkoa baitzen orduko Euskal Herrian. Eta hala eta guztiz ere haren lanek, Majueloren arabera, Espainiako orduko maila profesionalari eusten diote inolako arazorik gabe.

Zergatik, bada, ez dugu inoiz historialari gisa ikusten, baloratzen? Bi arrazoi daude horretarako: batetik, Campionen bokazio publikoa (politikoa nahi bada) eta bestetik, Euskal Herriaren egoera berezia bera bizi zen artean (unibertsitaterik gabe) eta haren heriotzaren ondoren (1937) frankismoak ekarri zuen erabateko etena (kultur bizitza berriz ere suspertzen hasi zenerako Campionen lanak guztiz beste garai batekoak ziren jada, hala

nola Altamira batenak Espainian, adibidez). Kasu bietan garbi dago Euskal Herriaren egoera berezia dela Campionekiko dugun ikuspuntu okerraren erantzulea, alegia, Euskal Herriaren zapalkuntza eta Campionek horren aurka izandako borroka luzea. Eta honekin bigarren dilemara pasatzen gara: Campion abertzalea ala erregionalista? Aipu luze bat egingo dugu:

Campion nunca fue partidario de la independencia del país lo cual no obsta para que su pensamiento fuera tempranamente nacionalista. El fuerismo se basó en el pactismo de base historicista que entendía de acuerdos previos entre los territorios vascos y la monarquía. [...] Que su pensamiento político tuviera mayor incidencia o no en el espectro restringido electoral carece de interés para su caracterización como un pensamiento nacionalista de raíces fueristas y no separatista, como se decía en la época. [...] Campión fue un vasco que pudo desear vivir en ese Estado pero que no se sintió español de nación porque en su concepción ni él lo era ni podía serlo, ni el Estado español podía suplantar las naciones existentes. Su formación cultural y su dedicación al estudio de la conformación cultural y étnica de los pueblos le convencieron de ello mucho antes de que el aranismo surgiera como especie de nacionalismo político. El país vasco al gozar de un particularismo socio cultural, al decir de las ciencias humanas y sociales de la época, solo dejaba una opción para su posible mantenimiento en el Estado español, la que emanaba de su propia voluntad, opción posible que en el caso de Campión fue de manera rotunda la de permanecer en España siempre que mediara entre ambas una relación de respeto mutuo: la que representaba la opción federal. En esa encrucijada hay que entender al Campión fuerista y nacionalista. (36. or.)

Beraz, Campion ez zen inoiz independentista izan baina aldi berean ez

zen espainol sentitzen eta paktu politiko baten alde egin zuen beti eta gogor: «una relación de respeto mutuo». Zer da hori, nazionalismoa ala erregionalismoa? Majueloren ustez garbi dago Campion nazionalista zela, independentista ez izan arren. Jakina denez, Jurgi Kintanak oso antzeko posizio bat defendatzen du Campionen garaikide eta lagun izan zen Resurreccion Maria Azkueri buruz (*Intelektuala nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra*, 2008). Uste dut posizio horrek adostasun zabala aurkituko duela burua hotz mantentzeko gai diren iker-tzaile guztien artean, alegia, posible da Euskal Herrian nazionalismo ez-independentista bat aurkitzea (Campion, Azkue, etab.) hala nola posible den beste horrenbeste aurkitzea garai berean Katalunian edo Galizian. Areago, ziur aski posizio hori aski arrunta zen garai hartako euskal intelektual askoren artean, beti gradazio bati buruz hitz egitea komenigarria bada ere. Baina nazionalismoa independentismoarekin berdintzea ez da onargarria, ez Campion bezalako intelektualentzat ez eta EAJ bezalako alderdientzat ere. Zergatik, bada, giro batzuetan nahi izan zaio kontrajarri Campion Sabino Aranari? Hain juxtu ere puntu hori azaldu gabe uztea da liburu honen hutsuneetako bat: Majuelok Campion historialaria errebindikatzen du, era berean Campion abertzalea errebindikatzen duelarik, baina ez du garbi esaten noren kontra egiten dituen errebindikazio horiek, ezta nola uztartzen dituen errebindikazio biak ere. Baina Majuelok berak bete ez duen lana geuk hemen betetzeko pretentsiorik ez dugu. Hori bai, gomendio sutsua luzatuko genioke, hots, Campioni buruzko historiografiaz artikulua osagarri bat (edo antzeko zerbait) idaztea. Ziur gaude harrera polemikoa izan arren interes handia piztuko lukeela eta,

gure ustetan, ezinbestekoa dela gure pertsonaiaren irudi osoago bat erdi-esteko.

Eta honekin hirugarren dilemara iristen gara: ildo koherente bati segitu ote zion beti? Kasu honetan ere Majuelok iritzi argia du: bai, dudarik gabe. Baina garbi dago hirugarren kontu honi dagokionez polemika batez ere orduko giroan kokatu behar dela, ez gaur egungo historiografian. Alegia, Campionek espektro politiko osoa zeharkatu zuen bere bizitzan zehar: errepublikanismo federalista, integrismoa, fuerismoa, nazionalismoa... ez naiz arduratu (Majuelo bera ere ez da arduratzen) zerrenda osoa eta zehatza egiten: nonbait, garbi dago bizitzan zehar alderdi politiko desberdinetan militatu zuela (militantziari orduan ematen zitzaion zentzuan) eta garbi dago hori dela-eta eraso eta burla ugari jaso behar izan zituela bere etsai politikoen eskutik. Baina Majuelok, gure ustez, argi erakusten ditu aldaketa horien guztien zentzu nagusia eta mugak. Alegia, batetik beti mantendu izan zen oinarrizko posizio politiko baten barruan: *Euskalerrriaren alde*. Posizio paktista horri federalismo, foralismo, autonomismo, nazionalismo... deitzea gutxienezkoa zen harentzat. Eta horren ifrentzua: aurrez aurre bi korrante politiko izan zituen beti: karlistak eta liberal zentralistak (bereziki canovistak, baina ez bakarrik). Ez da inkoherentzia bat: zentralismo mota oro gogor gaitzesteaz gain, erabat gorrotatu zuen karlisten politika insurrekzionala, Euskal Herriaren etorkizuna errege arrotz baten esku ipinita herria desatrrera bultzatzen zuelako; boluntario errepublikanoa izan zen gaztetan eta karlismoarekiko etsaigoa ez zitzaion sekulan pasatu. Honetan ere garbi dago abertzale bati buruz ari garela.

Dena den, horrekin batera eboluzio politikoa aski argi baten zantzuak ere soma daitezke. Horrela, 1885 inguruan argi eta garbi abandonatzen du bere gaztetako errepublikanismoa eta, beti katoliko leiala izan bazen ere (Castelar-en ildotik), data horretatik aurrera aita santuaren gidaritzara aldarrikatuko du sutuki. Orobat, sozialki gero eta kontserbadoreago bihurtu zen eta, adibidez, inoiz ez zuen *gizarte-auzia* ulertzeko eta bereganatzeko saioren txikiena ere erakutsi; alderantziz, alor horretan funtsean erreakzionario bat izan zen, hiriaren aurka baseritarren moral eta bizimodua goratu eta aldarrikatu zuena. Majueloren hitzetan, «rentista, burgués y católico conservador» (172. or.), horra gure pertsonaia. Eta gure oharra ia-ia esan gabe doa: Majueloren errebindikazio hirukoitzak eta pertsonaiaiekiko sinpatia nabarmenak ez dakarte, inola ere, haren beste alderdi batzuekiko itsumena.

Baina orain arte orokorrean aritu bagara, liburuaren sakoneko gaiak (nolabaiteko *konstanteak*) azalduz eta iruzkinduz, komenigarria da azpimarratzea liburuak berak beste egitura bat duela eta, bereziki, bai lehen partean zein bigarrenean Campioni buruzko mila eta bat iruzkin egiten dituela, mota askotako gai espezifikoak tratatuz. Horietako pare bat nahi dugu hemen nabarmendu.

Lehenengo eta behin, euskararena. Campion gure hizkuntzaren maitale sutua izan zen, bizi osoa iraun zion maitasuna hain zuzen ere. Gaztetan ikasi zuen, 24 urte zituenean lehenengo euskal lana (*Orreaga*, 1878, balada labur bat) ondu zuelarik; lan nagusia, berriz, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, 1884, 30 urterekin argitaratu zuen. Euskaraz narrazio labur batzuk, hi-

tzaldi batzuk, itzulpenen bat edo beste eta zenbait gutun egin zituen. Ez da asko, baina kontuan hartu behar da euskaldun berri hutsa izan zela horrelakoak oso-oso nekez sortzen ziren garai batean, eta garbi badago ere inoiz ez zela iritsi euskaraz naturaltasunez mintzatzera, garbi dago ere euskaltzale porrokatua izan zela eta euskararen, hain juxtu ere, ikusten zuela Euskal Herriaren identitatearen ardatz nagusietako bat. Areago, behin baino gehiagotan oso zorrozki kritikatu zuen euskal elite politikoen eta ekonomikoen praxi linguistikoa erdaltzalea, bitartean katalanak mirespenez beteta aipatzen zituelarik. Gauza gehienekin bezala, Campion pasioz aritu zen euskara ikasten eta ikertzen baina,aldi berean, zientziaren inperatibo kritikoak betetzen saiatuz. Aipagarriak dira Vinsonekin, Azkuerekin edota Sabino Aranarekin eta haren jarraitzaileekin izandako zenbait episodio eta polemika, beti ildo berean kokatzen zelarik: maitasunak ez zion zorroztasun kritikoak kamusten. Garbi dago, hala ere, 1884tik aurrera euskararekiko interesa jaisten dela eta haren ordean Nafarroaren (Euskal Herriaren) historiaren ikerketak bere denbora eta indarra hartzen duela, gero eta gehiago. Sinplifikatuz, Campion kazetari bezala abiatu zen, hizkuntzalari gisa segitu eta hogeita hamar bat urterekin, bere pentsamenduak behin betiko forma hartzen duenean, Historiarekiko hautua egin zuen. Hori bai, ekintza politikoa eta anbizio literarioak bizi guztian iraun zioten.

Gorago Campionen iturri intelektualei buruz hitz egin dugu, zenbait historialari aipatuz bereziki. Baina errakuntza bat litzateke pentsatzea Campion espezialitate estu batean murgildu zela; aitzitik, haren biografia intelektualean ezer aipagarriarik badago, kezken

zabaltasun ikaragarria da: hizkuntza, etnografia, historia, arkeologia... eta horrekin batera musika (melomano handia zen, Azkue bezala) eta literatura. Hitz batean, denetaz interesatu zen. Historian bertan ez zuen garai bat bakarra landu, guztiak baizik. Majueloren meritu handia da liburu honetan ikusmira horien zabaltasuna glosatzea eta, aldi berean, haren iturri intelektuak banan-banan aipatzea eta iruzkintzea; hori da ziur aski liburuaren alderik berrizaleena eta landuena. Aipatzen dituen egileen zerrenda edonor inpresionatzeko modukoa da. Hona lagin bat, exhaustiboa izan nahi ez duena: Herder, Humboldt, Ranke, Spencer, Tocqueville, Mill, Hume, Burke, Montesquieu, Taine, Carlyle... Horietatik guztietatik bi nabarmentzen ditu Majuelok: Wilhem Humboldt (1767-1835) eta Hippolyte Taine (1828-1893). Ez da orain lekua hautu hori justifikatzeko, baina bai nahi nuke datu hau azpimarratu: goian aipatu diren historialari frantsesek, arestian aipatu ditugun pentsalari eta idazleek, eta liburuan zehar aipatzen dituen beste hainbatek, guztiak dute ezaugarri komun bat: nolabaiteko liberalismo kontserbatzaile eta historizista bat. Beste hitz batzuekin esanda, horiek guztiak Frantziako Iraultzaren hasierako fasea (federalista dei dezagun orain, jakobinistari aitz) nolabait begi onez ikusten zutenak dira, Iraultzaren desmasiak eta, era berean, erregimen berriaren zentralismoa eta estatismoa gaitzesten zituztelarik. Horra Campionen karakterizazio politiko eta ideologiko zehatz bat, European zabal eta patxadaz ibil-

tzeko modukoa, ahaide ezagunekin. Berriz ere azpimarratzen dut: ziur aski marko orokor hori marraztea da Majueloren meritu nagusia liburu honetan.

Zeren eta iruzkin honi bukaera emateko tenorea iritsi da, gai asko oraindik ikutu gabe ditugularik, adibidez, orduko euskal testuinguru politiko eta intelektualean kokatzea, haren belaunaldia iruzkintzea, Espainiarekiko diferentzietan sakontzea, tesi historiko nagusiak haztatzea (Nafarroako Erresumaren sorrera eta haren amaiera, bereziki), arrazari buruzko kontzeptualizazioa aztertzea, eta abar. Guztiak dira gai interesgarriak, baina amai dezagun, gehiagi luzatu baikara.

Laburbilduz, hona liburu honen ezaugarri nagusia: Campionen irudi berri bat eskaintzen digu, oso aberatsa, baina apur bat desordenatua. Beste hitz batzuekin esanda, Campion lehendik ondo ezagutzen dutenentzat idatzia dela dirudi. Liburuaren egitura ondo pentsatua dago, baina irakurketa korapilotsua izango da gure pertsonaia aurrez ezagutzen ez dutenentzat. Dena den, nabarmendu dezagun berriz ere Majueloren lanaren emaitza: Campion bere garaiko intelektual europar bat da, iturri eta korrelatu zehatzak eta ezagunak dituena; edo alderantziz esanda, ez da euskal landare autoktono eta isolatua. Hori esatea eta froga garbiz zehaztea izan da haren lana, eta ez da gutxi, inola ere ez.

Pruden Gartzia Isasti

